

Euskararen Sustapen Teknolinguistikoa

Autor: Rodríguez León, Janire (Licenciado en Filología Vasca, Profesor de Euskara en Educación Secundaria).

Público: Profesores de Euskara. **Materia:** Euskara eta Literatura. **Idioma:** Euskera.

Título: Euskararen Sustapen Teknolinguistikoa.

Resumen

Zorionez, euskarak gogoz hartu du informazioaren eta komunikazioaren teknologien trena, nahiz eta egun, informatikan euskaraz jarduteak dakartzan buruhauste eta gorabeherak arduratuak gaituzten. Euskara nahiko ikustezina da toki askotan, eta horregatik ez da integratzen interneteko aplikazio eta webguneetan. Euskara plan honen xedea, jende kopuru urri bati zuzendua egon arren, euskarari IKTetan beharrezko statusa ematea da. Eskura ditugun aplikazio eta webguneetan lanean arituz euskarazko guneetara jotzeko ohitura zabaltzean eragitea nahi baitugu, erabiltzaileen auzolanak euskara bistakoagoa egin baitezaken ustetan baikaude.

Palabras clave: Euskara, teknolinguistika, Euskara Plana, IKT.

Title: Basque Language Planning and Revitalizing.

Abstract

Defenders and promoters of the Basque language come in various forms and have an accompanying variety of motivational factors. Because Basque government wants to restore and strengthen the language to avoid "cultural extinction" in Education and Society. In schools where Basque is taught as a primary or secondary language, textbooks and teachers emphasize that the language is a fundamental facet of students' identity. And we can use Technology for all mention.

Keywords: Basque, Technolinguistics, Language Planning.

Recibido 2017-12-27; Aceptado 2018-01-05; Publicado 2018-01-25; Código PD: 091090

1. SARRERA:

Proposamena eta Zergatia

Hasiera hasieratik puntuz puntu azalduko dugunaren xedea argi utzi nahirik, txosten honetan teknologia berrietan euskararen erabilera sustatu eta errotzeko euskara plana aurkeztea dugu helburu.

Gaur eguneko gizarteak informazioa du mugarri, hortik gu geu "jakintzaren gizarte" izenez ezagutzea, kritikoki informazioa aztertuz lantzen baita ezagutza. Jakina da mundu akademiko zein zientifiko-teknologikoa informazioa kudeatzen duten sistemak funtsezkoak izatea, baina, egungo teknologiaren paradigmak erakutsi duenez, lan esparrutik kanpo egon dauden eremuetan, hau da, eguneroko bizitzan bertan ere teknologia sistemak beharrezkoak ditugu.

Ondorioz, bistan da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKTak) beharrezkoak direla hezkuntza sistemako curriculumaren barruan egotea: Ikasleari IKTak ezagutu eta erabiltzeko gaitasuna emanez gizarte aldakor honetan aise moldatzeko ateak irekitzea izanik helburu, azken finean, erabiltzaile gisa aurrerapen teknologikoen aurrean arduratsu ager daitezen.

Halere, plan honen xedea ez da teknologia berrien sustapena edota curriculumeko beharrianak betetzea, aurretik esan bezala, IKTetan euskararen erabilera sustatu eta errotzeko plan baten diseinuaz arduratuko baikara aurrerantzean.

Zorionez, euskarak gogoz hartu du informazioaren eta komunikazioaren teknologien trena, nahiz eta egun, informatikan euskaraz jarduteak dakartzan buruhauste eta gorabeherak arduratuak gaituzten. Euskara nahiko ikustezina da toki askotan, eta horregatik ez da integratzen interneteko aplikazio eta webguneetan.

Euskara plan honen xedea, jende kopuru urri bati zuzendua egon arren, euskarari IKTetan beharrezko statusa ematea da. Eskura ditugun aplikazio eta webguneetan lanean arituz euskarazko guneetara jotzeko ohitura zabaltzean eragitea nahi baitugu, erabiltzaileen auzolanak euskara bistakoagoa egin baitezaken ustetan baikaude.

2. AURRELARIAK:

Urratsez urrats

Lehenik eta behin, proiektu berrizalea izanik ere, aurretik, beste erakunde batzuen eskutik martxan jarritako zenbait ekimenek bidea erraztu dutela aitortu beharra dago. Hortik, atal hau urratsez urrats deitu izana:

Lehenengo urratsa, Euskararen aholku batzordeak eginiko, Eusko Jaurlaritzak onarturiko eta Eusko legebiltzarrak berretsitako, 1999ko *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusi*atik dator. Hemen, 2003-2005 urte bitarterako *Euskadi informazio gizartean* planean ondorengoa genuen: “Plan honen helburua informazioaren teknologiak gizarte-maila guztietan sustatzea da, hain zuzen hezkuntza-alorrean, etxeetan enpresetan, kulturen eta Administrazioan.”

2003-2005 Planean ere *Euskara eta garapen teknolinguistikoa* izeneko atala genuen, teknologia berrietan integrazteko egindakoa eta egin beharrekoa zerrendatuz. Planean azaldutakoa baina, interneteko aplikazioetara zuzenduta zegoen ahalegina genuen: besteak beste, euskarazko prentsa on-line sustatzea, diziplina anitzeko euskarazko web orriak sortaraztea eta baita ere, software produkturik erabilienean itzulpen eta lokalizazioan eragitea.

Halere, euskara interneten bistakoa egiteko edukien garrantzia ez ezik, erabiltzaileena ere nabarmendu beharrekoa dugu. Aurrekariak izan ziren Ordiziako Jakintza Ikastolakoak, IKTak beren hezkuntza sisteman integratzean. Ikastolan euskaraz lan eginez IKTetan ikasleen trebetasunak aplikatzea egingarria zela konprobatu zuten, baita ere egindakoa euskaraz egin ere.

Azkenik Informatikari Euskaldunen VI. Bilkuran (2007ko maiatzan) Gari Araolazak “Web 2.0 hemen” lelopean Interneteko euskararen egoeraz mintzo zelarik, euskara gehiago ikus dadin aholkuak eman zituen. Eta baita ikasleei sarean eskura dituzten tresnak ongi baliatzen irakatsi behar zaiela esan ere.

3. JARDUERAK:

Trebeziak eta Helburu Orokorrak

Egun Europako Erkidegotik, baita Espainia eta Euskal Herriko Hezkuntza Sailetatik dagoeneko definitzen hasita daude, etorkizunari begira, gure gazteek lortu beharko lituzketen oinarrizko gaitasunak IKTen esparruan. Une honetan, marko orokorra soilik dago definitua; hau da, helburu orokorrak definitzen dira baina inongo zehaztapenik gabe. Helburu orokor horien ikusmira galdu gabe, irakasleek lana da gaitasunen lorpena bermatzeko hauen mailakatze egoki bat definitzea.

Horretan dihardugu lanean, lagungarria izan daitekeen informazioaren bila, baina aipatu beharra daukagu ez dugula inondik inora aurkitu erreferentziako dokumenturik honen inguruan. Garai bateko informatikako gaiari lotutako helburuen inguruan zerbait aurkitu dugu baina hauek, batez ere, tresnen erabilerari lotutako oinarrizko trebeziekin erlazionatuta daude. Eta gaurko marko orokorra hori baino dezente zabalagoa dela onar daiteke, zalantzarik gabe.

Erronka bikoitza da beraz: batetik IKTen oinarrizko gaitasunez gogoan izanik marko orokorrari atxikirik datozen jarduerak diseinatzea, gaitasun eta trebezia pedagogikoak kontuan izanik, eta bestetik, jarduerak hauek egiterakoan euskara planaren funtsezko helburua gogoan izan eta betetzea, hau da, jarduera orok euskararen erabilera ohituran eragitea ikasleengan.

Planaren helburu nagusia, ez da inolaz ere baztertuta utzi behar, hau baita funtsean ahaleginaren gakoa. Euskara planaren helburu nagusia erabilera areagotzea da, ikasleei euskarak IKTetan bere txokoa izan dezakeela eta jada baduela uneoro erakustea alegia. Ohituran eragiteko asmoz, gaur egun guztiz gureganatuak ditugun software eta aplikazioak euskaraz landuko dira. Jarduera mota bakoitzeko helburu nagusiaren pean, euskarari IKTen statusa eman eta euskal erabiltzaileak sortu eta trebatzeaz gain, hauek diseinatzean azalduko den moduan euskararen erabileran eragina izango duten helburu espezifikoak ere landuko dira.

Lehenengo erronkan azaldutako legez, diseinuaren barruan bete beharreko oinarrizko kompetentziak hiru multzo nagusitan banatu ditugu:

- **Gaitasun instrumentalak:** tresnen oinarrizko erabilerarekin loturiko trebeziak (zer da internet, webgunea, nabigatzailea, hipertestua, etab.) Tresnei zentzua ematen dien ezinbesteko kontzeptuak.

-Komunikazioari loturiko gaitasunak: Eguneroko bizitzan elkarrekin komunikatzeko sortu diren baliabideak modu eraikitzaile eta eraginkorrean erabiltzea (posta elektronikoa, txata, VoIP komunikazio tresnak, elkarlanerako inguruneak, etab.)

- **Jarrerazko helburuak:** Elkarlana bultzatzeko tresna eraginkor gisa ikustea IKTak, norberaren ekarpenek duten garrantziaz jabetzea, euskal gizartean eta euskal kulturaren eragiteko gaitasuna izateaz jabetzea, etab.

Eta behin eta berriz esandako moduan, oinarriko kompetentzi hauen atzean, euskara izango da ardatz uneoro, euskara IKTetan integratzea helburu nagusi izanik. Are gehiago, kompetentziak ikasgelatik kanpo garatzea bilatuko da, honelatan, emaitzak denboran irauarazteko estrategiak landuz.

4. JARDUERAK:

Ekintzak eta Helburu Espezifikoak

Teknologia berrien sustapenez, aurretik aipatutako EHAAren alean irakur genezakeen beharrianaz bat eginik ageri da euskara plan hau: “Bistan da hezkuntza orokorreko etapa honetan beharrezkoa dela curriculumaren barruan egotea, informazioa tratatzeko teknologia. Batetik ikasleak ezagutu eta erabiltzeko gai izan behar du, beste arloak ikasteko tresna gisa. Bestetik, gizarte aldakor honetan aise moldatzeko gai izan behar du, kritikoa eta arduratsua izan aurrerapen teknologikoen aurrean”

Euskarari normalkuntza eta honen erabileraren ohituraren aldaketak lortzeko ekintza fase ezberdinak jarriko dira martxan:

Alde teknikoari dagokionez, astean ordu eta erdiko bi ikastordu izango dira plana martxan jartzeko abiapuntu, guztira astean ikasgelan bertan hiru ordutan lanari ekinez.

Oinarriko kompetentzietan banatutako hiru azpimultzotan eragina izango duten ekintzat landuko dira:

Batetik gaitasun instrumentalei dagokienez, tresnei zentzua ematen dien ezinbesteko kontzeptuak landuko dira (zer da internet, webgunea, nabigatzailea, hipertestua, etab.) Honetan, euskara planak, gaztelerazko oinarritik abiatuz ikasleei programak euskararazteko baliabideak irakatsiko zaizkie, hau da, ofimatika eta nabigatzaile erabilienak euskaraz konfiguratuko dira. Helburu espezifikotzat, aurrerantzean IKTen erabilera bera naturaltasunez euskarari lotzeko asmoarekin bete-bete ibiliko gara.

Bestetik, aplikazioen euskaratze prozesuarekin amaituz, komunikazioari loturiko gaitasunak landuko dira. Eguneroko bizitzan elkarrekin komunikatzeko sortu diren baliabideak modu eraikitzaile eta eraginkorrean erabiltzea sustatuko da. Puntu hau izango dugu ikasleen produkzioaren ardatz nagusi, bakoitzak bere ardurapean kudeatuko duen blogetan buru-belarri sartuko baikara. Astero bete beharko dituzten jarduerak hemen publikatu beharko dituzte, eta baita elkarrekin komunikatzeko tresna gisa landu ere. Hau da, Web 2.0 teknologien erabilera ulertaraziko zaie ikasleei ekinaren ekinez. Blog komunitateetako fenomeno errepikatzea izango dugu irakasleok lorpen nagusi gure geure blog komunitatearen bidez. Mota honetako jardueren helburu espezifikoak, komunitatean bertan elkar eragina lortzea izango da, eta guztia euskaraz ematea, nola ez. Aurretik jada martxan dauden euskal komunitateak ikuskatuko ditugu ikastorduaren hasieran, ikasleak interesgarri izan ditzakeen euskal blogosferako artikulua eta guneetan nabigatzera bultzatuz. Bestalde, bigarren helburu espezifiko bat ere landuko da euskararen erabileran eragina izango duena alegia: ikasleei blogetako produkzioa euskara ez formalean, hau da, eguneroko euskararen idaztea eskatuko zaie, honelaz, ikastetxeetan lantzen den euskara formalean ez idazteak, produkzioari naturaltasuna atxikitzea lorturik.

Azkenik, jarrerazko helburuen kompetentzietan, elkarlana bultzatzeko tresna eraginkorrak erakutsiko zaizkie. Ikasleen blogetako produkzioaz gain, wiki teknologietan lanean jarri, betiere euskaraz. Lehenik ikasleak “Nirewiki: wikiak sortzeko plataforman” trebatuko dira, baina behin trebakuntzaz baliaturik Euskarazko Wikipedian bertan artikulua publikatzea bultzatuko ditugu, zenbaitetan itzulpen lanak eskatuz, besteetan gai espezifiko edo libre bati buruzko artikulua idaztera bultzatuz.

Helburu espezifikotzat, elkarlan produkzioetan murgilduz norberaren ekarpenek duten garrantziaz jabetzea izango da. Eta baita, honelakoetan arituz, euskal gizartean eta euskal kulturaren eragiteko gaitasuna izateaz jabetzea ere. Bigarren helburu espezifiko bat dugu oraingo honetan ere, hain justu aurrekoaren kontrakoa, euskara batua IKTetan lantzea alegia.

Idatzi beharreko testuak euskara jasoz lantzeko eskatuko zaie eta honela euskararen e-normalkuntzan eragina sortu ere, ICTetan euskara tartetxoa izatea posible dela erakutsiz, alegia.

Are gehiago, ohitura aldaketaren xedeak bultzaturik konpetentziak ikasgelatik kanpo garatzea bilatuko da, ICTak ikasgelatik kanpo erabiltzera bultzatuz eta etxerako lanen bitartez ikastetxetik kanpo lan egitera behartuz. Honen kabuz, emaitzak denboran iraunarazteko estrategiak lantzea lortu nahi da.

Esandakoaren ildotik, ikasleen jarduera eta ekintzak alde batera utzita, euskara eta ICTen lotura aisialdian ere elkar loturik ditugun kontzeptuak direla ere erakutsiko da. Honetarako aisialdian erabilitako aplikazioak euskarazten erakutsiko da batetik, P2P deritzegun eMule plus eta uTorrent bezalako aplikazioak euskaraz erabiliz; eta bestetik, “NireTV: bideoblogak sortzeko aplikazioa” eta “Nirudia: argazki blogak sortzeko aplikazioa” bezalakoetan aisialdi uneetan jostatzeko aplikazioak euskaraz ere badaudela erakutsiz. Honez gain, aisialdiarekin nolabait lotua dugun informazio guneak ere landuko dira: besteak beste, zabaldu.com, sustatu.com, irratia.com edota “Letrak jokagai”, *Mah Jongg* motako jokoak, bezalako webgune eta jokoetan aisialdirako baliabideak erakutsiz. Azken finean, ikasleei sarean eskura dituzten euskarazko tresnez ongi baliatzea nahi da, ICTetan euskaraz jardutea normalizat har dezaten.

Helburu orokorrak zein espezifikoak lortzeko, euskara plana abian jarritz geroztik lortutako presentzia eta erabilerazko emaitzen neurketa eta jarraipena egin beharko litzateke. Hau, jada, irakaslearen presentziak eta ikasturtean zehar egingo diren ebaluaketa ezberdinek bermatuko dute. Ikasleak ikasgaien eskatutakoaren oinarritzakoena behintzat betetzera behartuak daude. Honela bada, euskarazko trebeziak landu egin beharko dira nahitaez eta euskarazko produkzioa segurtatua gelditzen da. Hala ere, euskara planaren gorabeherak, eta zailtasunak euskara batzordearekin ikuskatuko dira, aurrerantzean jarraitzeko aldaketarik egin beharko balitz, guztion artean adostu beharreko eginkizuna izango baitugu.

5. ONDORIOAK:

Etorkizuneko Erronka

Aurrelariak puntuan aipatu dugun, *Euskara Plan Nagusiako* ‘Euskara eta garapen teknolinguistikoa’ izeneko atalean, ondorengo genuen irakugai ‘Ondorioak eta etorkizuneko erronkak’ azpiatalean: “Euskara hizkuntza-teknologietan integratzeko, hizkuntza-baliabideak sortu behar dira, nahita ez. Garapen teknolinguistikoko hori beharrezkoa da bai hizkuntza arlo horretan normaliza dadin, bai euskararen presentzia bermatzeko gizartearen espazio elektronikoa, telematikoa, digital erretikularrean, bai globalizazio-garai honetan gure hizkuntzak bizirik iraun dezan ere”.

Batetik, euskara planen erronkaz aurretikako egoera emaitza onuragarriak eskuratuz aldatzea lortu izan da. Gaur egungo software pakete erabilienak, planean espezifikatzen den moduan euskaratuak baitaude: Internet Explorer eta Firefox nabigatzaileak, Windows XP, Linux eta Mac plataformen euskarazko interfazeak, Panda Titanium-a, edota hamaika bulego aplikazio, bai hizkuntzen ikaskuntzarako, orokorrean irakaskuntzarako eta aisialdirako aplikazioak, zein interneten aritzeko tresnak, eta abar jada euskaratuak baitaude.

Aurretik esan bezala, euskara ez dago gaizki interneteko rankinean, baina honelako euskara planetan ekinean jarritz pausu txiki eta errazak emango dira euskara tropeleko buruan sartzeko. Ikasleak gaztetatik teknologia berrietara euskaraz ohituz, ezagutza onak, erabilera egokia eta hizkuntzaren normalizazioari bultzada apal baina egingarria ematea lortuko da. Azken finean, argi dago helburu erabat lorgarria dugula erabiltzaileen auzolanak euskara interneten bistakoagoa egitea, honelako ekimenen bidez ahalegina bideratzea besterik ez da falta.

Bibliografía

- **Arratibel Arratibel N. eta Ojanguren Leunda M. J. (2000):** *Enpresa txiki eta ertainen administrazio eta kudeaketa*. Elhuyar, Usurbil.
- **Cooper, R. L. (1989):** *Language planning and social change*. Cambridge University Press, Cambridge.
- **Erabili.com (2003):** "Hamar urte enpresa eta euskara uztartzen. Elay Taldea"
www.erabili.com/zer_berri/muinetik (2003-06-02).
- **Euskararen Aholku Batzordea (2005):** "Esparru sozio-ekonomikoan euskara biziberritu eta hizkuntza-normalizaziorako hurbilpen sistematikoago eta eraginkorragoa izateko irizpideak eta estrategiak". Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- _____ (1992): "Lan-mundua eta euskara. Hizkuntza normalkuntzarako bideak". Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- **Fishman, J. (1991):** *Reversing Language Shift. Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon, Multilingual Matters 76.
- **Hainbat egile (1997):** "Euskararen erabilera lan-munduan. Erabilera Planen metodologia. 1996ko abenduaren 12an egindako mintegira aurkeztutako txostenak". Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- **Junyent, M. C. (2000):** *Gimcana de les llengües*. Ediciones Octaedro, Barcelona.
- **Lanhitz egitasmoa:** <http://www.euskara.euskadi.net/r59-11477/eu/>
- **Sánchez Carrión, J. M. Txepetx (1987):** *Un futuro para nuestro pasado*. Erein, Donostia.
- **Soziolinguistika Klusterra:** <http://www.soziolinguistika.org/index.php?q=eu>